

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

PEÑACERRADA-URIZAHARREKO UDALA

Kirol, kultura eta gizarte-ekintzaren arloko lehiaketa bidezko dirulaguntzen deialdia 2024. urtean egiten diren jardueretarako

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea, lehiaketa bidez, udalerrian gizarte-, kultura- eta kirol-arloko ekimenak, programak eta jarduerak garatzen laguntzeko, betiere udalaren esku-hartzea osatzen badute eta honela garatzen badira:

2024ko urtarrilaren 1etik urriaren 31ra bitartean garatutako programak eta jarduerak.

Honako oinarri hauek arautuko dute deialdia, baita ere azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan (Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrearen Erregelamendua onartzen duena) eta aplikatu beharreko gainerako araudi osagarrian eta garapenean aurreikusitakoa.

Deialdi honetan araututako dirulaguntzen kudeaketa printzipio hauen arabera egingo da: publikitate, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, finkatutako helburuak betetzeko eraginkortasuna eta baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko eraginkortasuna.

1. artikulua. Deialdiaren xedea eta helburua

Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzen helburua da Urizaharreako udalerrian 2024ko urtarrilaren 1etik urriaren 31ra bitartean irabazi-asmorik gabeko elkarte eta erakundeek garatutako proiektuak eta jarduerak sustatzea, baldin eta honako arlo hauetako batekin edo batzuekin lotuta badaude:

- Sustapen soziokomunitarioko esku-hartzeak:
 - Gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna.
 - Integratioko eta/edo kulturartekotasunekoak.
 - Adinekoak.
 - Hezkuntzakoak, aisialdikoak eta astialdikoak, haur eta/edo gazteentzat.
 - Osasuna prebenitzekoak.
 - Etengabeko prestakuntza eta boluntariotzaren sustapena.
 - Sentsibilizaziokoak: ingurumenekoak, etab.
- Kultura sustatzeko esku-hartzeak:
 - Prestakuntza eta sorkuntza artistikoa.
 - Herritarrek parte hartzeko kultura-jarduerak (herriko jaiak eta herri-bazkariak kanpoan utzita).
 - Kultura zabaltzekoak: hitzaldiak, ikastaro monografikoak, erakusketak, etab.
 - Bisita kulturalak: museo, erakusketa, parke natural eta antzekoetarako sarrerak.

3. Kirola sustatzeko esku-hartzeak:

- Kirol-jarduerak.
- Kirol-ekitaldiak antolatzea eta garatzea.
- Oinarrizko kirola sustatzea.

Ez dira diruz lagunduko:

- Eragindako gastu pertsonalak: otorduak, dietak, joan-etorriak eta norberaren erabilerarako bestelako materiala.
- Elkartearen barne-funtzionamenduak eta kudeaketak eragindako gastu materialak. Ezta irabazi-asmorik gabeko elkarte edo erakundearen web-orria mantentzeko xedea dutenak ere.
- Udalak eskaintzen dituenen pareko proiektuak, udalaren esku-hartzearen osagarri ez badira.
- Federazio-gastuak.
- Kirol arloan lan egiten duten eta legez eraturik dauden elkarte eta elkarten material ez-suntsikorra eta/edo ekipamendua erosteko gastuak.

2. artikulua. Pertsona eta erakunde onuradunak

I. Honako hauek izango dira dirulaguntza hauen onuradunak:

Irabazi-asmorik gabeko kirol-elkarte, -erakunde eta -klubak, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean xedatutakoaren arabera behar bezala erregistratuak, baldin eta haien programak edo jarduerak udal-eremuan egiten badira.

II. Erakunde onuradunek bete beharreko baldintzak:

- 2024ko urtarrilaren 1etik urriaren 31ra bitartean udalerrian gizarte-, kultura- eta/edo kirol-sustapeneko esku-hartzeak egin izana.
- Haren jardun-eremuak Peñacerrada-Urizaharrako udalerrian eragina izatea.
- Sozietatearen egoitza udalerrian egotea.
- Ezingo dira deialdi honetan araututako dirulaguntzen onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako egoeraren batean dauden pertsonak edo erakundeak.

3. artikulua. Aurrekontu-zuzkidura

2024. urterako aurrekontu-zuzkidura honako hau da:

Bi mila euro (2.000,00), 334.481.000 aurrekontuko partidari dagozkionak.

Dirulaguntzak borondatezkoak izango dira eta ezin izango dira aurrekaritzat jo. Udalaren dirulaguntza bateragarria izango da onuradunek eskura ditzaketan beste laguntza batzuekin. Aurrekoa gorabehera, udalaren dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izango da izan, bakarka hartuta edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuen beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin batera, garatutako jarduera edo programan egindako gastuaren zenbatekoa baino handiagoa.

4. artikulua. Zenbatekoa

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko gastu eta diru-sarrera hauen arteko defizita hartuko da kontuan: garatutako jardueran edo programan egindako gastua eta helburu bererako erakunde publiko zein pribatuek emandako dirulaguntza edo laguntza, edo erakunde onuradunak lortutako besteren bat.

Zenbatekoa artikulua honetan zehazten diren balorazio-irizpideen arabera finkatu beharko da.

Udalak ematen duen dirulaguntzak ezin izango du gainditu, inola ere, onuradunak bere jarduera guztietarako duen urteko defizita, ezta onuradun bakoitzeko Seiehun (600,00) euro ere.

Nolanahi ere, eskaera kopurua eta jaso beharreko zenbatekoak kontuan hartuta, gehieneko ehunekoak murriztu beharko balira gaitutako aurrekontu-partidan esleitutako kreditura egokitzeko, murrizketa jarduera guztiak gutxituko lirateke, proportzionalki.

Balorazio-irizpideak:

a. Aurkeztutako programak. Gehienez 15 puntu.

Egindako jardueren kopurua: puntu bat jarduerako.

b. Bazkide kopurua (puntu bat 15 bazkideko): gehienez 6 puntu.

c. Urteak elkartea edo erakundea sortu zenetik (puntu bat urteko): gehienez 15 puntu.

d. Jardueran edo programan Euskararen aldeko eragina edo tratamendua. Gehienez: 2 puntu.

e. Genero-berdintasunaren ikuspegia sartzea jardueraren garapenean. Gehienez: 2 puntu.

Balorazioaren ondorioz lortutako puntuak bat etorriko dira aplikazio-ehuneko honekin:

LORTUTAKO PUNTU KOPURUA DEFIZITAREN ZENBATEKOAREN GAINEAN	APLIKATU BEHARREKO DIRULAGUNTZAREN %
1 - 10 puntu	% 1etik % 25era
11 - 20 puntu	% 26tik % 50era
21 - 30 puntu	% 51tik % 75era
31 - 40 puntu	% 76tik % 100era

5. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskatzaileek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

Dokumentu orokorrak:

– Eskaera eskabide ofizialean. (I. eranskina).

– Justifikazio-kontu sinplifikatua (II. eranskina).

– Zinpeko aitortpena, xede bererako beste diru-laguntza edo laguntzarik eskatu edo jaso den edo ez adierazteko jatorria beste edozein administrazio, erakunde edo ente publiko izan. Beste dirulaguntzaren bat eskatu eta/edo jaso bada, kobratua izan ala ez, eskatutako eta emandako zenbatekoa adierazi beharko da, eta, hala badagokio, erakunde publiko edo pribatu emailea. Halaber, datu horiek egiazkoak direla egiaztatzen duen egiaztagiria aurkeztu beharko da. (III. eranskina: helburu bererako diru-sarrerarik eskatu edo lortu ez bada. IV. eranskina: helburu bererako beste diru-sarrera batzuk eskatu eta/edo lortu baditu).

– Gastuen eta sarreren balantzea, diruz lagundu daitekeen aldian egindako jarduera bakoitzaren arabera banakatuta.

– Diruz lagundu daitezkeen fakturen fotokopia konpultsatua eta ordainketaren justifikazioa.

– Eskatzailearen (elkartearen ordezkaria) NAN/AIZren eta elkartearen IFKren fotokopiak (baldin eta dokumentazioa udalaren esku ez badago).

– Peñacerrada-Urizaharreko Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria (Udalak gehituko du).

– Gizarte Segurantzarekiko ordainketak eta zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria; ziurtagiririk ezean, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen zinpeko aitortpena aurkeztuko da.

– Estatutuen fotokopia eta legez eratuta eta elkarteen eta erakundeen erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa. Ez da beharrezkoa izango dokumentazio hori aurkeztea, baldin eta udalean lehenago entregatu bada eta indarrean badago deialdi honetan eskatutako dokumentazioa aurkezten den egunean.

– Langile-gasturik badago edo erakunde onuradunek PFEZ atxikipena duten fakturak aurkezten badituzte, foru aldundiari egindako atxikipenen ordainketa justifikatu beharko da, 190 ereduaren kopiaren bitartez.

– Udalean ez badago, banku-erakundeak emandako ziurtagiria, kontu-zenbakia eta titular-tasuna erakunde onuradunaren izenean daudela adierazten duena.

6. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea

Aurkezteko epea 2024ko azaroaren 8an amaituko da. Epe horretatik kanpo ez da eskaerarik izapidetuko.

Dokumentazioa Peñacerrada-Urizaharrako Udaleko erregistro orokorrean aurkeztuko da, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazitako edozein bide erabiliz.

Eskabideak oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak betetzen ez baditu, erakunde edo klub interesdunari 10 egun balioduneko epean zuzentzeko eskatuko zaio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua arabera.

7. artikulua. Emateko eta ebazteko prozedura

Araudi erregulatuzailean definitutako lehiaketaren arabera emango dira dirulaguntzak, honako berezitasun hauekin:

1. Espedientearen instrukzio-organoa Peñacerrada-Urizaharreko Udaleko idazkaritza izango da. Instrukzio-organoak egiaztatuko du eskatzaile guztiek betetzen dutela oinarri hauetan xedatutakoa, eta, hala badagokio, behar diren datuak edo dokumentuak zuzentzeko eskatuko du. Era berean, dagokion proposamena egingo du, dagokion izapidetzea egin ondoren.

2. Organo instrukzio-egileak txostena egingo du, egindako ebaluazioaren emaitza eta eman behar den laguntzaren proposamena zehazteko.

3. Alkate-udalburua da ebazteko organo eskuduna. Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren emango da ebazpena.

4. Deialdiaren ebazpena, administrazio-bideari amaiera emango diona, erakunde eskatzaile guztiei jakinaraziko zaie, eta ALHAOn, udaleko iragarki-oholean eta web-orrian argitaratuko da.

8. artikulua. Onuradunen betebeharrak

– Dirulaguntza ematen duen organoaren aurrean justifikatzea, hala badagokio, betekizunak eta baldintzak betetzen direla, bai eta dirulaguntza ematea edo baliatzea eragiten duen jarduera egin dela eta helburua bete dela ere.

– Laguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztapen-jarduerak onartzea, bai eta Estatuko eta Europako Erkidegoko kontrol-organo eskudunek egin ditzaketen finantza-egiaztapeneko eta -kontrolako beste edozein jarduketan ere. Horretarako, egindako jarduketetan eskatzen zaion informazio eta dokumentazio guztia aurkeztu beharko du, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eska ditzakeenak barne.

– Dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik lortu duen.

– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzea.

– Pertsona juridikoa bada, kontabilitate-liburuak, izapidetutako erregistroak eta behar bezala ikuskatutako gainerako dokumentuak izatea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatzekoa den merkataritzako eta sektoreko legeriak eskatzen duen moduan.

– Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jarduketan xede izan daitezkeenean.

– Jardueraren publizitatean honako hau jaso beharko da: “Peñacerrada-Urizaharreko Udalaren laguntzarekin”, bai eta udalaren armarrria ere hurrengo ekitaldiko jardueretan.

– Dirulaguntza ordaintzeko, Peñacerrada-Urizaharreko Udalak hasi eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzulketa- edo zehapen-prozedura amaitu beharko da.

– Eta, oro har, dirulaguntzak arautzen dituen araudi orokorrak ezarritako betebeharrak betetzea.

9. artikulua. Dirulaguntzak ordaintzea

Behin betiko ebazpena interesdunei jakinarazi ondoren, ordainketa 30 eguneko epean egingo da.

Onuradunek oinarri hauetan jasotako betebeharrak eta zehaztapenak betetzen ez badituzte, dirulaguntza baliogabetu ahal izango da, eta emandako dirulaguntza itzultzeko prozedura Peñacerrada-Urizaharreko Udalaren dirulaguntzei buruzko udal-ordenantzan araututakora egokituko da.

10. artikulua. Araudi aplikagarria

Oinarri hauetan aurreikusten ez denerako honako araudia beteko da: Toki Araubidearen Araudia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua eta horiekin bat datozen gainerako araudi aplikagarrietan araututakoa.

Deialdi honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko epaitegietan, bi hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratu eta biharamunetik aurrera; edo, bestela, berraztertzeko errekurtsoa, deialdia onartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta biharamunetik aurrera.

I. ERANSKINA

Peñacerrada-Urizaharra udalerriko (Araba) irabazi-asmorik gabeko kirol-elkarte, -erakunde eta -klubentzako 2024ko ekitaldiko kirol, kultura eta gizarte-ekintzaren arloko gastuetarako dirulaguntza eskabidea

..... jaunak/andreak (NAN:),
..... kirol elkarte/elkarte/klubeko lehendakaria
naizen aldetik (IFK:; helbidea:;
posta-kodea:; Arabako probintzia; telefonoa mugikorra:;
helbide elektronikoa:),

AZALTZEN DUT

Peñacerrada-Urizaharra udalerriko (Araba) irabazi-asmorik gabeko kirol-elkarte, -erakunde eta -klubentzako 2024ko ekitaldiko kirol, kultura eta gizarte-ekintzaren arloko gastuetarako dirulaguntzen deialdiaren arabera, eta deialdi horretan adierazitako oinarrien berri izanda,

ESKATZEN DUT

Aipatutako gastuak finantzatzeko diru-laguntza emateko, kostu osoa honako hau izanik: Horretarako, deialdiko oinarrien 5. artikuluan aipatzen diren agiriak eranstu ditut. Eskatutako dokumentuak erantsi dira, eta horien egiazkotasuna ziurtatzen dut:

Erantsitako dokumentuak (x batez markatu).

1. Justifikazio-kontu sinplifikatua. (II. eranskina).
 2. Diruz lagundu daitezkeen fakturen fotokopia.
 3. Zinpeko aitortpena, helburu bererako beste dirulaguntzarik edo laguntzarik eskatu edo jaso ez dela adierazten duena. (III. eranskina).
 4. Zinpeko aitortpena, helburu bererako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk eskatu eta/edo jaso izanari buruzkoa. (IV. eranskina).
 5. Gizarte Segurantzaren eta zerga-betebeharretan egunean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria. Bestela, zerga-betebeharrak ordainduta dituela egiaztatzen duen zinpeko aitortpena aurkeztuko da.
 6. Gastuen eta sarreraren balantzea, diruz lagundu daitezkeen aldiaren egindako jardueraren arabera banakatuta (II. eranskinean dago).
 7. Langile-gasturik izanez gero, edo erakunde onuradunek PFEZ atxikipena duten fakturak aurkezten badituzte, Arabako Foru Aldundiari egindako atxikipenen ordainketa justifikatu behar da, 190 ereduaren kopia bidaliz.
 8. Eskatzailearen NAN/AIZren eta elkartearen IFKren fotokopiak (aurkeztu behar izanez gero).
 9. Estatutuen fotokopia eta legez eraturik eta elkartearen eta erakundearen dagokion erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen dokumentazio eguneratua (aurkeztu behar izanez gero).
 10. Kontuaren titulartasunaren banku-ziurtagiria (aurkeztu behar izanez gero).
- Horretarako, ZINPEAN ADIERAZTEN DUT ordezkatzen dudana erakundea ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. paragrafoek ezarritako ezein egoeretan.

.....(e) n, 2024ko(a) ren (e) (a) n.

Sin.:

(Erakundearen sinadura eta zigilua).

II. ERANSKINA (1. orria)

Kontuaren justifikazio erraztua

..... jaunak/andreak (NAN:),
..... elkarteko lehendakari gisa (IFK:),
2024. urtean egindako jarduera hauei dagokien justifikazio kontu erraztua sinatzen du:

- 1. jarduera. Izena:

Azalpena:

.....
.....
.....
.....
.....

- 2. jarduera. Izena:

Azalpena:

.....
.....
.....
.....
.....

- 3. jarduera. Izena:

Azalpena:

.....
.....
.....
.....
.....

II. ERANSKINA (2. orria)

(Dirulaguntzan aurkeztzen den jarduera bakoitzeko diru-sarreraren eta gastuen zerrenda bereizia aurkeztuko du).

Jarduera zenbakia :

Izena

Egindako jarduera finantzatu duten diru-sarrera guztien zerrenda:

ERAKUNDEA	ZENBATEKOA

Egindako jardueraren gastuen zerrenda:

HORNITZAILEA	IFZ	FRA. ZKIA.	FRA. DATA	KONTZEPTUA	ORAINKETA DATA	ZENBATEKOA
Guztira						

.....(e) n, 2024ko(a) ren (e) (a) n.

(Erakundearen sinadura eta zigilua).

III. ERANSKINA

(Helburu bererako beste diru-sarrerarik eskatu eta lortu EZ bada).

..... jaunak/andreak (NAN:),
 elkarteko lehendakari gisa (IFK:),

ZINPEAN AITORTZEN DUT

Ordezkatzen dudan erakundeak ez duela inolako diru-sarrera publiko edo pribaturik eskatu, ezta lortu ere, Peñacerrada-Urizaharreko Udalean dirulaguntza jasotzeko aurkeztu diren 2024ko ekitaldiko kirol, kultura eta gizarte-ekintzaren arloko gastuak finantzatzeko.

Peñacerrada-Urizaharreko Udalean dirulaguntza jasotzeko aurkeztzen diren jardueretarako diru-sarrerak lortuz gero, idatziz jakinaraziko zaio administrazio horri, eman eta hilabeteko epean.

.....(e) n, 2024ko(a) ren (e) (a) n.

Sin.:

(Erakundearen sinadura eta zigilua).

IV. ERANSKINA

(Helburu bererako beste diru-sarrerarik eskatu eta lortu bada).

..... jaunak/andreak (NAN:),
..... ELKARTEKO LEHENDAKARI gisa (IFK:),

ZINPEAN AITORTZEN DUT

Ordezkatzen dudan erakundeak honako diru-sarrera hauek eskatu eta/edo lortu dituela (erakunde publikoetatik edo pribatuetatik), 2024ko ekitaldiko kirol, kultura eta gizarte-ekintzaren arloko gastuak finantzatzeko, jarraian zehazten den moduan:

ERAKUNDEA	KONTZEPTUA	ESKATUTAKO ZENBATEKOA	JASOTAKO ZENBATEKOA

.....(e) n, 2024ko(a) ren (e) (a) n.

Sin.:

(Erakundearen sinadura eta zigilua).

Peñacerrada-Urizaharrear, 2024ko apirilaren 17an

Alkatea
JUAN JOSÉ BETOLAZA PINEDO